

# Alkohola, tabakoa eta espazioa: Gure kaleetan ostalari-terrazen agerpen masiboaren inguruko saiakera.

Ion Etxabe Gutierrez

Arkitektoa eta Hiri Ikasketetako  
doktoregoko ikaslea.



Jasotze data: 2015-04-10 / Onarpen data: 2015-01-20

*Laburpena:* Elementu finkoekin mugatutako ostalaritza-terrazek gure espazio publikoa pribatizatu eta baldintzatu egiten dute. Bestalde, sozializazio-gune eta ekonomia lokalaren puntu estrategikoak dira. Horiek horrela, posible al da eredu orekatu bat eraikitzea?

*Abstract :* Our public space it is being privatised and conditioned by fixed-element demarcated bar terraces. On the other side, they are both socialising spots and strategic for the local economy. Thus, is it possible to build a balanced model?

*Gako-hitzak:* terrazak, homogeneizatzea, erabilera malgua, aniztasuna

*Keywords:* terraces, homogenization, flexible use, diversity

+++++

Kanpo-elementu finkoz osatutako eremu osagarriak diren terrazek ostalaritza-establezimenduei bultzada handia eman diete. Beste askok bezala, sektore honek kontsumoaren jaitziera nabaritu egin du. Terrazek helburu anitz lortzen dute. Edukiera handitzen dute, konfort altuko espazioa eskaini —beroa, babestua—, inguruaz edota paisaiaz gozatzeko aukera, eta —haien arrakastaren arrazoi indartsuena— erre daiteken lekua ere eskaintzen dute. Izan ere, tabakoaren legea onartu zenetik, ostalari eta enpresarien elkarte ugari aurrerapauso nabaria erakutsi dute arlo honetan eragina duten arauak eguneratzeko intentzioarekin. Horren adibide, Jaengo ASOSTEL elkartearen eskaera da: San Ildefonso auzoan, «txikia izanda ere, taberna guztiek terraza bat muntatzeko aukera» merezi dutela uste du hango lehendakariak. Beste adibide bat Madrilgo Udal Terraza eta Kioskoen Ordenantzaren eguneratze-lanen inguruko iritzietan aurki dezakegu. Udalaren esanetan, «hiriaren ekonomia-jarduerari etekina aterako dion» ordenantza, alegia, Madrilgo Enpresari Konfederazioaren lehendakariak, horrela, «Madrid Parisen tankerakoa izatea» nahi du: «Hotz handiko eta terraza ugariko hiria, madrildarren eta urtero hiria bisitatzen duten milioika turisten kontsumoa aktibatuko duena». Horrek guztiak, espazio publikoan kokatzen diren terrazan instalazioa malgutzera eta taberna eta jatetxeen diru-sarrerak igotzera eraman du.

Bestalde, hiri bakoitzari dagokion ordenantza fiskalak ezartzen duen bezala, elementu hauek urtero diru-sarrera suposatzen dute udalentsat. Getxon, adibidez, metro karratu/urteko 26 eta 50 euro arteko tasa ordaindu behar da. Horri, metro lineal/urteko 4'5 euroko tasa alboko babes-elementuengatik gehitu behar zaio, baita 1'2ko koefizientea ere oinezkoen kaleetan. Esanak esan, enpresari eta udalentsat behintzat, terrazan ezarpenak alde positiboak dituela baieztatu dezakegu.

## Gatazkak

Baina irabazi-asmoa duten eta espazio publikoan finko ezarritako elementu pribatu hauek hiriaren gune askotan oharkabe pasatzen ez diren gatazkak eragiten dituzte. Azalera handia okupatzen dute, pasabidea zein mugikortasuna zailduz. Ordenantzak terrazan eta espaloiaren bazterren edota eraikinen artean pasabide askeak egotea eskatzen dute, 1'5 eta 2 metro artekoa kasu gehienetan. Hala ere, elementu hauek sortzen duten atrakzioa kontuan hartzen ez dutela ematen du. Horrela, terrazan inguruan sortzen diren pertsona-masa handiek proiektatutako pasabideen baliogabetzea eragiten dute, bezeroak ez diren pertsonen erabilera mugatuz. Gainera, elementu finkoak direnez, establezimenduak itxita daudenean ere espazio publiko okupatzen jarraitzen dute. Normalean, lurzorura errotuta daude eta alboetako babes-panelek hesi-funtzioa betetzen dute. Beraz, azalera hori taberna itxitakoan guztiz baliogabetuta gelditzen da. Kalearen erabilera malgua zailtzen du, espazioa hipotekatuz eta haren askotariko erabilera mugatuz. Horrek egoera latzak sortzen ditu, Cadizen aurtengo Aste Santuan gertatutakoa adibide. Antza, Hildako Jesusen prozesioak bere ibilbidea aldatu behar izan du, Mina plazako ostalari batek bere terraza kentzeari uko egiteagatik.

Beste batzuetan, ostalarien interes berdinak hauen kontra jo egiten du, beste kolektibo batetik datorrenean. Valentziako Falletan hori bera gertatzen da, ostalarien eta Falletako karpeneren arteko borroka piztuz. Fallen inguruan adostutako arauak ostalariak terrazak kentzera behartzen ditu, segurtasun- eta ebakuazio-arrazoiak direla medio. Karpeneren eta janari-postuaren ezarpena baimentzen du, ordea. Horrek guztiak, tabernen azalera gutxiagotzeaz aparte, aurkako kompetentzia zuzena errazten du.



**Irudia** – Getxon paradigmakoa den kasu baten bi une ezberdin.

**Egilea** – Ion Etxabe, Taide Artetaren argazkietan oinarrituta.

### **Homogeneizatze sozioespazial hirukoitza**

Lehenik, terrazen ugaritzeak alkoholaren inguruan daukagun sozializazio eta aisiaren eredia indartu eta potentziatzen duen neurriaz hausnartu beharko genuke. Adinen artean ezberdintzen ez duen eredia, gainera. Bigarrenik, artefaktu hauek hainbat hiriguneren aniztasuna baldintzatzen dute, batez ere espazio ireki eta publiko zentralenak. Ordutegi eta bezero oso konkretuak dauzkan ostalari-erabilera zabaltzen dute. Hirugarrenik, homogeneizatzearen aspektu formalari aditu beharko genioke. Terraza guztiek diseinu berdina gauzatzeko joera ikusten da, ordenantzak jartzen duen diseinu-irizpideari jarraituz, hain zuzen ere. Getxoko kasua aintzat hartuz berriro ere, errotutako egiturak luzera-garapenaren bost metroko bi euskarri izan behar dituela agintzen du arauak; gainera, elementuak, ahal izanez gero, altzairuzkoak izango direla dio, eta pinturazko akabera izanez gero, hura gainerako hiri-altzariei esleitutakoa izango dela.

Joera horrek indartsu jotzen du: aipatutako ordenantzak oinezkoentzako kaleetan, plazetan edota espazio nabarmenetan topo egiten duten establezimenduak behartzen ditu baterako altzairu uniformeak jartzera, «harmonia estetikaren berariazko baldintzekin». Hain zuzen ere, udalerrri horren terrazen aniztasuna murrizten ari dela ikusten dugu, erantzun formal bakar batera mugatuz. Horrek, daukaten presentzia espazialari gehituta, aipatutako homogeneizatze-prozesua gero eta gehiago indartzen du. Zorigaitzez, aisia eta elkarrekin erlazionatzera zuzendutako elementuak dira eta. Badirudi diseinuan, kolore eta formalizazioan, askatasun gehiago eskatzen duten objektuak direla. Badago beste eredurik?

Ez ditugu zertan eredu burutsuak asmatu. Beste kultura zein kale-erabilerei so, espazio publikoaren kudeaketan interes publiko zein pribatuak barneratzen dituzten eredu malgu, plural eta alaiagoak badira eta. Gure inguru eta izaerara molda daitezkeenak gainera. Begirada freskatzeko baino ez bada ere, Hanoi-n beren bizkarrean jatetxe eramangarriak eramaten dituzten emakumeak, Bangkokeko gauean janari-postuen ondoan biltzen diren aulki koloredun festa, edo

London City-ko langileek finantza-jarduerak amaitu eta gero puben ateetan osatzen dituten terraza efimeroak datozkigu burura. Hau da, eguraldiaren eragina ez da nahikoa gure kaleetan agertzen ari diren artefaktuen instalazioa justifikatzeko.

Hurbileko adibideak egon daitezkeela ere ez dugu zalantzarik jartzen. Gertuan publikoaren eta pribatuaren arteko muga meheaz hausnartzea ahalbidetuko diguten kasuak ere badaude —gatazka espaziala saihesten, ez legala baizik—. Aspaldi ez dela, Madrilgo gauean, azken taberna itxi ostean, hainbat saltzaile ibiltari gerturatu zitzaigun garagardo-potoak eskaintzen. Horietariko batek, zeuzkan potoak amaituta, berarekin beste hainbat bilatzera joatera gonbidatu gintuen. Zalantza barik, saltzaileari jarraitu eta, bost minutura, gure ondoan zegoen etxe batean aurkitu genuen geure burua: hozkailua, sukaldea zein korridorea garagardo-potoz gainezka zegoen. Nahi beste erosi, eskerrak eman eta kalera bueltatu ginen. Ostalari-establezimenduen irekieraren edota zabalkuntzaren aurka egotea ez da kontua, honetan. Beraien kokapenaren eta espazio publikoan jarritako elementu osagarrien hausnarketa serio bat ezinbestekoa dela, baina, tinko defendatzen dugu.

### **Erreferentziak**

«Los hosteleros de San Ildefonso quieren habilitar terrazas», *AndalucíaInformación.es*, 2013-05-20.

«Madrid será como París, una ciudad con mucho frío y muchas terrazas», *RadioLibertad.com*, 2012-09-18.

«El Caído varía su recorrido al no poder cruzar por el interior de la plaza de Mina», *Diario de Cádiz*, 2015-03-25.

«Los hosteleros declaran la guerra a las carpas falleras al vetarse terrazas de bares», *Levante-El Mercantil Valenciano*, 2015-03-17.

Getxoko Udala (2010): *Erabilera publikoko espazioetan terraza eta barrak jartzea arautzen duen udal ordenantza*, Getxo.net.

Getxoko Udala,(2015): *Udal herri jabaria atzemateagatikotasen zerga ordenantza arautetzaillea 2015 urtea*, Getxo.net.